

LYRICA GARAIA

JON
ARRETXE



erein

LYRICA
GARAIA

29

uzta gorria

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2022ko azaroan

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

© Jon Arretxe

© EREIN. Donostia 2022

ISBN: 978-84-9109-852-2

L.G.: D 1246-2022

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

JON ARRETXE

LYRICA
GARAIA

erein

Javi Abasolo
maisú eta adiskideari

*Bills Ballhaus in Bilbao
war das schönste auf dem ganzen Kontinent.
Dort gab's für einen Dollar Krach und Wonne,
und was die Welt ihr Eigen nennt.
Ich weiß ja nicht, ob Ihnen so was grad gefällt, doch:
Es war das Schönste auf der Welt.*

Bilbao Song, Bertolt Brecht

1
BERRIRO ETXEAN



Fleming plazako jarlekuak hutsik daude ekain hasierako arratsalde ekaiztsu honetan, eta horiek bete ohi dituzten afrikarrek alboko eraikinen teilatu hegalen azpian bilatzen dute babesa, euren eguneroko zeregin nagusiari, solasari, utzi gabe.

Plaza zeharkaturik, Gorte kalean sartu naiz eta El Edén klubaren albotik pasatzerakoan oihu batzuk aditu ditut, emakume oihuak. Prostituta bi agertu dira bat-batean kale kantoitik, bata bestearen atzetik korrika, aurrekoa laguntza erreguz, atzekoa biraoka eta heriotza-mehatxuak eginez, botila bat daramala eskuan. Inguruko klub zaharkituen sarrean dauden beste emakumeak ere deiadarka hasi dira, batzuek «Lasaitu, Fatima!», beste batzuek «Ospa, Emily!», baten batek sakelakoa eraman du belarrira...

Hortik gutxira sirenak aditzen hasi dira, eta aldi berean emakume erasotzailea asfalto bustian irristatu eta zartako ederra hartu du. Iheslariak harengandik urruntzeko aprobe txatu

du, eta berehala iritsi dira lehenengo txakurrak, udaltzain gazte batzuk, San Frantzisko kaletik datozen eskaileretatik saltoka. Gero Ertzaintzaren auto bat ailegatu da, eta hortik ere polizia gazte samarrak jaitsi dira. Ezezagunak zaizkit orain arte ikusi ditudan guztiak, eta beste molde batez eginak dirudite. Orain ile-mozketa modernoak eta gimnasioko gorputzak dira nagusi haien artean. Badirudi hemen bizi nintzenean izorratu ninduten beterano tripadun eta burusoilak beste norabait bidali dituztela.

Edonola ere, pausoa bizkortu, istilu-gunetik aldendu eta Mozollo Baltza klubean sartu naiz. Irekita dirauten beste bospasei putetxe-kobazuloek bezalako itxura dekadentea dauka kanpotik –sarrerako burdina ugertuko mozoloa, horren isla–, eta barrualdeaz ere beste horrenbeste esan liteke. Bonbilla gorri makal batzuen argipean, barra zaharkitua ezker aldean, lanerako gelaxka bat honen alboan, komun txikia atzean, mahai gutxi batzuk eskuinean, eta hauen artean kokaturik bi emakume, gurpil aulkitxo baten dagoen ume txikiari goxokiro hitz eginez. Urtebete inguru izango du eta bera da lekuz kanpokoa dirudien gauza bakarra. Barraren ostean, ordea, paisaiarekin guztiz bat datorren atso ileurdin marmarti eta mesfidatia. Halakoa zen, behintzat, ni Afrika Txiki honetan bizi izan nintzenean.

—Kaixo, Loles, gogoratzen zara nitaz?

Segundo batzuk igaro ondoren erantzun dit andreak:

—Joder, Toure, ia ez zaitut ezagutu! Zenbat denbora zu ikusi gabe?

—Hiru urte edo?

—Gutxienez. Zelan arraio bururatu zitzaizun artzain joatea Nafarroara?

—Halabeharra.

—Eta txarto joan zaizu han? Horregatik itzuli zara zulo honetara?

Lolesek ez daki, antza, Nafarroako nire egonaldia txarto ez, desastre atera zela, Pariseraino ihes egin behar izan nuela, han sekula imajinatu ez bezalako mailan bizi izan nintzela nire bitxi-lapur ogibide berriari esker, patuak Madrileraino eramán ninduela, han primeran egon nintzela ondasun guztiak ostu zizkidaten arte... Eta ez daki miseriak itzularazi nauela Bilbora. Miseriak eta beste arrazoi batek: bere lobak, Kristinak, nire Sa Kene maiteak.

Sorbaldak jaso ditut, beste barik, eta gaiez aldatu dut:

—Zelako iskanbila dagoen hor kanpoan, ezta?

—Bai, eta ez da lehenengo eguna. Puta mairu hori da erruduna. Ostu egiten die bezeroei, eta hori gutxi balitz, gamelu-zereginetan ere badabil eta kontsumitu egiten du. Kolegak kokoteraino dauzka, horrela jokatuz bezero apurrak uxatuko dituela leporatzen diote, eta hara zein den zoro horren erreakzioa.

Barra ondoko gelaxkatik ateratzen diren gizon-zizpuru batzuk aditu dira, ohe-malgukien hots karrankari azelera-tuekin batera. Ozenduz joan dira hotsak, hasperen ito batekin amaitu diren arte.

—Zeozer hartu behar duzu? —galdetu dit Lolesek.

—Ez, eskerrik asko.

—Prezio berezia egingo dizut.

—Erdiaren erdia kobratuta ere, ezingo nizuke ordaindu.

—Orduan, zertara etorri zara?

Senegaldar gazte bat sartu da Mozollo Baltzean, kaleko saltzailea. Nafarroan zaintzen nituen ardien artean errazago kolokatuko luke jeneroa hemen baino. Hala ere, ahalegindu da mutila, irribarrea galdu gabe. Berehala, ezinezko arrakastaz jabeturik, zortearen elefante nîmîñoak atera eta klu-bean gaudenon artean banatzen hasi da, «oparia» esanez. Prostituta batek figuratxoa hartu, umearen eskuetan utzi eta hamar zentimo eman dizkio saltzaileari, besteak kexuz adierazi dio gaur zerbitzu bat ere ez duela egin, Lolesek zerbait ulertezina murmurikatu dio, elefantea ukatuz, eta nik eskukadatxo bat jo diot sorbaldan.

Kalera bidean barra ondoko gelaxkaren aurretik pasatu denean, honen atea zabaldu egin da. Beste gizonezko beltz bat irten da lehenik, eta honen atzetik andre lirain bat, bertoko itxurakoa, prostituta zereginean jarduteko zaharregia dirudiena.

—Hurrengora arte, laztana –esan dio emakumeak Mozollo Baltzetik kaleko saltzailearen atzetik irten den bezeroari, eta gero Lolesi eta niri txandaka so egin digu, klubaren jabeari bost euroko billetea luzatzeaz bat—. Nire zain dago gizon puska hau? Ezin dut sinetsi.

—Ez sinetsi, ez, ze morroi hau lur jota dago. Hobe duzu beste nonbait bilatzea gizonak.

Andreak hasperen egin, kalera irten, zigarro bat piztu eta bizkarra horman hasi da erretzen.

—Zenbat urte dauzka? —galdetu diot Lolesi.

—Hirurogeita hamalau.

«Zuk beste, gutxi gorabehera?» galdetzeko tentazioa izan dut, baina klubaren jabea aurreratu egin zait:

—Ixabel Palankako urrezko garaietatik dago hemen, ni bezala.

—Eta, ikusten dudanez, oraindik badauzka bezeroak.

—Bai, antzinako gizon solteren bat eta afrikar etorri berriren bat ere bai. Klase handikoa izan da beti nire kolega.

—Lehen, beste andre bat egoten zen hemen zurekin, are zaharragoa eta hainbesteko klaserik ez zeukana, beti MG ginebra edaten zuena.

—Bai, Rosa zoritxarrekoa. Edaria izan zen haren galbi-dea, gibelak ez zion eutsi eta. Orain Ixabel eta biok baino ez gara gelditzen lehengoetatik.

Isildu egin gara, eta Loles begira geratu zait.

—Tira. Esan behar didazu, behingoz, zertara etorri zaren Mozollo Baltzera?

—Zure lobaz galdetu nahi nizun.

—Oraindik ez zara berarekin egon, ala?

—Bai, Bilbora itzuli naizenetik, behin, baina oso kezkatuik nago beragatik.

Bekain-jasotzea izan da erantzuna, eta gogora etorri zaizkit Sa Keneri, Madrilera bisitan etorri zitzaidanean, igarri

nizkion markak, begiko zauria, gorputzeko beltzuneak...

Harira joatea erabaki dut:

—Norbaitek jotzen du, ezta?

—Berak zer kontatu dizu?

—Ezer ez, arazoa konponduta dagoela dio.

—Ba horixe da egia.

—Umea egin zion gizon berak astintzen du? —Aulkietako bi prostitutek entretenitzen duten haurtxoari, Mattini, begira egin dut galdera.

—Ez izan astuna, Toure. Kristinak arazoa konponduta dagoela esan badizu, kito, ez dago besterik.

Beste gizon gazte bat sartu da Mozollo Baltzean, oraingoan zuria, trajez jantzia, ile beltz gominatukoa. Karpeta bat dakar besapean.

—Zer galdu zaio mutil galant honi Palankako klubik dotoreenean? —galdetu dio Lolesek.

—Arratsalde on. Gabi naiz, auzoko etxe-salmenta agenzia berriko langilea. Kluba salgai jarri nahi duzula entzun dut.

—Ze arin zabaltzen diren berriak! Oraindik iragarkirik ere ez dut ipini eta hasi dira putreak ailegatzen. Usaimen ona duzu, antza.

—Horixe da nire lana, andrea, adi egotea sortzen diren aukerei, eta gauza bat esango dizut, nire eskuetan uzten baduzu operazioa, ahaztu iragarkiez eta berehala aurkituko dizut eroslea. Zenbat eskatu nahi duzu klub honen truke?

—Ez dakit, ba. 150.000 euro inguru prezio egokia iruditzen zaizu?

Gabi delakoak ez du berehalakoan erantzun. Lanerako gelaxkako atea ireki eta bistadizoa eman dio barruari, beste horrenbeste egin dio komunari, eta gero barra ondora itzuli da.

—Barkatu, andrea, zelan daukazu izena? —itaundu du.

—Loles.

—Hara, Loles, egia esango dizut. Ezinezkoa da lokal honen truke inork kopuru horren erdia ere eskaintzea. Baina neuri bakarrik ematen badidazu salmentaren ardura...

—Isilik egon! —moztu du atsoak—. Ez nago prest klub mitiko hau inori oparitzeko. Zuk badakizu zelako historia daukan leku honek? Zelako artistak pasatu diren hemendik, zelako kontzertu eta ikuskizunak antolatzen ziren antzina...?

—Zeuk esan duzu, Loles, antzina, eta historiak ezer gutxi balio du salmenta kontuetarako. Bilbo berrian gakoia da lokalak zenbat metro koadro dauzkan, zelako egoeran dagoen...

—Nahikoa entzun dut! Hitzontzi endredatzaile hutsa zara eta beste batzuk, agian engainatuko dituzu, baina ni ez. Ziur nago eskaintza piloa izango dudala Mozollo Baltza saltzeko. Iragakia ipiniko ditut eta kito!

Bisitaria ez da saiatu atsoaren iritzia aldatzen. Jakaren poltsikotik txarteltxo bat atera eta barraren gainean ipini du.

—Hemen daukazu nire kontaktua, Loles. Hobeto pentsatu eta nire laguntza nahi baduzu, deitu eta berehala helduko gara akordio batera. Ados?

—Agur.

Gizonak alde egin du eta Lolesek, txarteltxoari begiratu laburra eman ondoren, paperontzira bota du.

—Zer pentsatzen dute gazte hauek? —Niri begira geratu da—. Arrazoi dut, ezta?

—Jakina.

Elkarrizketa gutxi gorabehera jarraitu arren, neure burua beste nonbait egon da denbora guztian, atsoaren lobaren egoeran, eta honen sufrimenduaren eragilea aurkitzeko moduetan. Aurkitu eta... Edonola ere, Lolesen aldartea ikusita, ez dirudi gaur inolako informaziorik aterako diodanik, eta otu zait onena izango dela erantzunak beste bide batetik bilatzea.

—Badaukazu non lo egin? —galdetu dit atsoak.

—Bai, Osmanek egin dit lekua bere gelan, antzina bezala. Ezagutzen duzu?

—Bai, noski. Sekulako arrakasta daukagu afrikarrekin eta noizean behin hona etortzen da bera ere zerbitzu eske. Morroi jatorra, beltza izateko. Zu bezala.

—Eskerrik asko.

Kalerako bidea hartu dut.

—Pentsatzen ari naiz... —Lolesen hitzek geldiarazi egin naute une batez—. Horren izorratuta bazaude... Niretzat lan egin nahi zenuke?

Ustekabean harrapatu nau, guztiz, proposamenak.

—Zelako lana izango litzateke?

—Ondo etorriko litzaidake zure moduko gizakote bat. Gorte kalea ez da inoiz Disneylandia izan, baina aspaldi

honetan are okerrago gabiltza, iskanbilak ugaritzen ari dira eta. Puta mairu hori gure neskak molestatzen ibiltzen da, eta gainera, askotan aljeriar labanazale bik laguntzen diote. Horrez gain, mairu gazte kolazale horietariko asko agertu dira bat-batean auzoan, eta gauez emakumeei osten saiatzen dira. Bestelako jende zoroa ere azaltzen da noizean behin eta arazoak sortzen ditu...

—Zuretzat segurata lana egitea proposatzen ari zara?

—Ba bai, horrelako zerbait. Zer deritzozu?

Ez da nire ametsetako ogibidea, baina orain nagoen egoeran, erabat lur jota, edozein diru-iturri eskertuko nuke. Hemen bizi izan nintzen aurreko aldian denetarik egin nuen: ustezko igarlearena, gigoloarena, operako figurantearena, jaietako buruhandiarena, zezen suzkoarena... Zergatik ez seguratarena?

—Zenbat ordainduko zenidake?

—Ez dakit ba, arratsaldez etorri eta kluba itxi arte geratuz gero, agian berrehun edo hirurehun euro emango nizkizuke?

—Astero?

—Hilero. Hori gehi eskupekoak.

—Zer eskupeko?

—Ezin jakin, bezero batzuk oso eskuzabalak izaten dira.

—Agure pentsiodunak eta etorkin gosekilak, oso eskuzabalak? Zer eskupeko atera daiteke hortik?

—Batek daki.

Aurpegia ozpindu egin zait, eta atsoa beste bide batetik saiatu da:

—Beste aukera bat ere badago, orduka lan egitea.

—Zenbat orduan egunero?

—Ikusiko genuke.

—Eta zenbat kobratuko nuke orduko?

—Ba... hiruzpalau euro. Hemen inguruan ibiltzea izango litzateke kontua, normalean ezertxo ere egin gabe. Azken baten, Fleming plazako jarleku baten egon zein hemen inguruan egon... zer diferentzia dago? Hemen dirua jasoko zenuke, sikera, paseoan ibiltzearen truke.

—Bai, dirutza.

—Gizona, Mozollo Baltzean diru-sarrera eskasak eta gastu ugari dauzkat: ura, argia... Garai txarrak dira.

—Jakina, batez ere niretzat. Hara, gelaxkatik irten den atsoak, Ixabelek, bost euro eman dizkizu.

—Bai, eta?

—Zure ohe zaharra hamar minutuan erabiltzearen truke, ezta?

—Hamar baino gehixeago.

—Eta niri bizpahiru euro eman nahi dizkidazu ordu oso baten zure lokala eta jendea babestearen truke, labankadak eta kolpeak jasotzeko arrisku eta guzti?

—Tira, tratu bat egin dezakegu, kutxa ona egiten dudan egunetan, apur bat igo ahal dizut soldata: bost euro orduko edo.

Kalera bidean jarraitu dut, etsita.

—Pentsatuko duzu?

—Bai, noski.

—Bien bitartean, zaindu nire loba, ados?

—Horretan ez izan zalantzarik.

Lokaleko prostitutek entretenitzen duten Mattini azken begiratua eginda, kalera irten naiz. Bizkarra horman jarraitzen duen Ixabel zaharrari agur esan diot, eta berak begi-keinua egin dit. Gero Mozollo Baltzetik urrundu naiz. Lolesen azken hitzek berriro ekarri didate gogora Kristinaren aurpegi kolpatua.

* * *

San Frantzisko kalera jaitsi eta Berebar tabernarantz abiatu naiz, zeregin gabekoz betetako espaloi estutik. Romaña janari-dendaren aurretik igaro eta gutxira iskanbila batekin egin dut topo: ijito potolo bat oihuka ari da: «Ostu didate, mairu putakumeeek ostu didate!».

Atorrako botoiak askaturik dauzka, eta bular iletua agerian. Eskuetan darama sakelakoa eta mezuren bat bidali berri du, antza, hortik minutu erdira Ford Fiesta zahar bat ailegatu baita gurpilak erretzen. Ijitoaren ondoan geratu eta bere arrazako beste lau morroi atera dira presaka, haietako bik bihurkin bana daukate eskuan, beste batek burdin barra bat, beste batek beisboleko batea...

—Nor izan da, horko horiek? —galdetu du batedunak, jatetxe arabiar baten sarreratik arduragabekeriaz so egiten dieten magrebtarrena abiatzekoa eginez.

—Ez dakit. Urrezko lepokoa kendu eta lurrera bota naute. Ez dakit nondik joan diren putaseme horiek.

—Zergatik ez duzue denok elkar akabatzen!? —bota du andre nagusi batek bigarren solairu bateko balkoitik.

Ijitoek ez entzun egin diote atsoari. Hara eta hona so daude, begiak odol egarriz, nor jipoitu erabaki ezinda. Zalantza une horretan, polizia-auto bat ailegatu da eta udaltzain bi jaitsi dira azalpen eske. Beste auto batzuen sirenak ere aditzen dira gero eta hurbilago.

Nahikoa ikusi dudala erabaki eta Berebarrerantz jarraitu dut. Auzoko banku bakarraren aurretik igarotzean jonki bat ere ez ikusteak harritu nau, hor egoten baitziren denak pilaturik Afrika Txikian bizi nintzenean. Dena den, apur bat goragoko bidegurutzean, Arnotegi kalearen parean, argitu da nire zalantza. Hortxe daude orain, txinatar dendaren sarrera inguruan, eskailera eta petriletan jesarrita, egoanean. Ziur poliziak-edo bota dituela bankuaren ondotik toki bakartiago batera joan daitezen, gutxiago ikus daitezen. Horrela konpontzen dira arazoak hemen.

Berebarren sartu eta barrara hurreratu naizenean Xiha-bek bostekoa luzatu dit, eta segituan te-edalontzia eta pasta bi jarri dizkit aurrean, zerekin ordaindu ez daukadala jakin arren. Nire lagun bereberrak, Osman gelakidearekin eta Sa Kenerekin batera, Bilbo aldean daukadan sostengu nagusia osatzen du. Momentu zailenetan hor egongo dira beti hirurak, soberan erakutsi didate edozertarako konta dezakedala eurekin.

—Ez zara nekatuko zure amorantea zelatitzen? —Buruko keinuaz kaleaz bestaldeko Arteta farmazia seinalatu du, Kristinaren lantokia, hain zuzen.

—Atzo esan nizun: ostiatzen duen kabroia harrapatu arte ez naiz geldituko.

—Nik ere esan nizun ez dudala inoiz ikusi morroi hori San Frantziskon. Zer espero duzu, juxtu orain agertzea?

Arrazoi du Xihabek. Ziurrenik, tontoarena egiten ari naiz zaintza zentzugabe honekin. Dena dela, desesperatu egiten nau Sa Kenek ezertxo ere ez kontatzeak arazoari buruz. Zergatik? Benetan amaitu ote da dena?

Bezero gutxi daudela aprobetxatuz, Xihabi eskatu diot xehetasun gehiago emateko bere azken urteotako bizimoduaz. Dena txarto atera zitzaiola esan dit: Alemaniara ezkontzeko plana, han bizitzen geratzeko saiakera... Kontua da hona itzuli behar izan zuela, buztana hankartean. Hala ere, ez ditu galdu ohikoak zituen umorea eta txantxazaletasuna.

Ia ohartu gabe zortziak ailegatu dira, Kristinaren lana amaitzen den ordua, eta farmaziako atea ireki eta kalera irtetzen ikusi dudanean Berebarreko barraren azken muturrera joan naiz, ikusi ez nazan. Minutu erdi igarotzen utzi eta, Xihabi agur esanda, kalera irten naiz ni ere.

Ez da zaila Sa Keneri San Frantziskotik jarraitzea, haren adats gorri luzea primeran nabarmentzen baita ilekizkur beltzaranen artean. Harrobi kalean beti egoten diren polizia-autoen albotik igaro eta, eskailerak igota, Gorte kalera

heldu da. Susmatzen nuenez, Mozollo Baltzera zuzen joan eta hantxe sartu da. Errepideaz bestaldeko Manhattan klubaren atarian sartu naiz neure burua ezkutatzeko, eta latino azentuko andre batek hitz egin dit.

—Neska bila, lagun?

Berehala ezagutu dut: lehen, zoro botiladunarengandik ihesi zihoan emakumea da, zuria, gaztea, begi beltz handi eta bizikoa.

—Nahita ere ezin izango nuke. Apur baten baino ez naiz hemen egongo, ardura ez badizu.

Sosik aterako ez didala jakinda, berehala alde egingo zuela pentsatu dut, baina oker nengoen, nirekin berriketan geratu baita. Neska jatorra suertatu da, gainera.

—Emily daukat izena, eta kolonbiarra naiz. —Bostekoa luzatu dit.

—Niri Toure esaten didate, eta Burkina Fasokoa naiz.

Afrika Txikian denak kexatzen dira euren bizimoduaz, gehienak arrazoiz, eta Emilyk ere beste horrenbeste egin du. Inoiz baino garai eskasagoa omen da hau bere ogibidekoentzat.

—Atera nahi duten prostituzio lege berriaren arabera —azaldu dit—, gure bezeroak kartzelan sartuko dituzte, klubben jabeak ere bai, ostatuen jabeak ere bai... Eta gu kalean geratuko gara, ondo izorraturik.

—Horregatik ikusten da hain mugimendu gutxi Palankan aspaldi honetan?

—Jakina, bezeroak beldurrez daude, klubben jabeak bezala. Euren lokalak salgai jartzen hasi dira batzuk. Eta gero

zer gertatuko da gurekin? Beste irtenbiderik ematen ez badigute, nondik biziko gara?

Trans bat ere hurreratu zaigu: kankailu bat, harri-jasotzaile gorputza izan arren pieza bateko soineko beltz estu laburra janzten duena. Autoktonoa dirudi, eta mugimendu nabarmenak egiten ditu matrailezurarekin hitz egitera-koan, kokaz edo, seguruago, speedez gainezka balego bezala.

—Zer uste dute, prostituzioa debekatuta zeozer konponduko dutela? —bota du—. Zer egingo dute gizonek gu hor ez bagaude haien grinak asetzeko? Ikusiko duzu zelan ugarituko diren bortxaketak eta pedofilia kasuak. Damutu egingo dira lege berria ateraz gero.

—Egia hutsa —Emilyk.

—Guk nahi duguna egin dezakegu geure zakil, alu, aho nahiz ipurtzuloarekin! —jarraitu du aldarrika transak, gero eta beroago—. Nor da gobernua guri hori debekatzeko? Ez da ez, eta bai da bai!

Kristina luzatzen ari da Mozollo Baltzaren barruan, eta ni konfiantza hartzen joan naiz lagun berriekin, batez ere Emilyrekin. Kexuz jarraitu du, etsita, eta bere seme-alabez hitz egin dit, bi dauzkala dio, eurengatik sartu omen zen mundu honetan, beste diru-iturririk aurkitzen ez zuelako.

—Erakutsi haien argazkiak —proposatu dio transexu-
lak.

Emilyk sakelakoa manipulatatu bitartean haur txikiak imajinatu ditut. Horregatik, pantailan hogeitaka urteko neska baten irudia erakutsi didanean, harritu egin naiz.

—Hori da zure alaba?

—Alaba nagusia, bai.

—Zenbat urte dauzka?

—Hogeita lau.

—Eta zuk?

—Hogeita hamalau.

Ezagutu ditut ama gazteak Afrikan, batzuk oso gazteak, baina ez hamar urterekin erditu den inor. Emilyk dioenez, aitaordeak utzi zuen haurdun, eta naturaltasunez kontatzen du, ez dirudi inolako traumarik daukanik horren erruz. Egia esateko, mundu honetako miserableenontzat alferrik da geure burua zigortzea iraganeko zoritxarrekin. Nahikoa dugu orainari aurre egitearekin, bizirik irautearekin. Emilyren ardua nagusia orain zera da, Kolonbian bizi diren alaba hori eta seme gazteagoa zoriontsuak izatea, eta egunen baten hona ekartzea, soldata hobeko beste lanposturen bat lortzen duenean.

Ezaguna egin zait leloa, nik neuk ere erabili bainuen luzaroan. Ezinezko ametsa zela jabetu nintzen arte.

—Zuk baduzu familiarik? —bota dit, ezinbestean, kolonbiarrak, eta Gorom-Goromen utzi nituen emazte eta seme-alabei buruz hitz egin diot, labur. Siraz, oster, mafia nigeriarrak akabatu zidan alabaz, ez diot tutik esan.

Mozollo Baltzeko atea ireki da, behingoz, eta Sa Kene irten da kalera, semearen aulkitxoari bultzaka.

—Ilegorriaren umea zurea da? —galdetu dit ustekabeen Emilyk.

—Nondik atera duzu ideia hori?

—Gu hemen egoten gara egun guztian –argitu du transexualak, bere ahots zakarraz–, zeregin ezean aspaldion. Atzo ere ikusi zintugun ilegorriari jarraika. Umea egin zenion, eta orain ez du ezer jakin nahi zutaz, ezta?

—Ez, ez da hori.

Sa Kene urruntzen ari da eta ez dut begi-bistatik galdu nahi. Baina, bestalde, oraintxe konturatu naiz beharbada bikote honek argibideren bat eman ahal didala nire lagunaren egoeraz, agian jotzen duen gizonaz...

—Egongo gara beste momentu baten, ados? –proposatu diet.

—Nahi duzunean –erantzun du Emilyk, irribarrez–. Hemen topatuko gaituzu.

* * *

Kristinari tarte zuhur bat utziz jarraitu diot Gorte kaletik aurrera. Kontainer batzuen albotik igarotzerakoan gelditu behar izan du, espaloia blokeatzen duen supermerkatuko gurditxo baten aurrean. Burdinazko tramankuluz beterik dago eta horren jabea, bistaz ezagutzen dudana ijito antiojodun ilekizkurra, Israel, makila luze baten laguntzaz arakatzen ari da kontainerretako bat, gorputz erdia barruraino sartuta. Sa Kene ikusi duenean, barkamena eskatu eta berehala mugitu du bere gurdia, pasatzen uzteko. Ez da gehiegi aldatu Israelen bizimodua, antza, Afrika Txikiko

nire aurreko egonaldian ere txatar-bilketa izaten baitzen ha-
ren diru-iturri nagusia.

Kristinak Gorte kalean dagoen taberna klasiko bakarra,
El Gallo, atzean utzi, eta, Mirasol Kondearen bideguru-
tzean ezkerretara jota, San Frantzisko kalera jaitsi da berriz.
Berehala iritsi da bere atarira, giltza sarrailan sartu eta... eta
zuzen eta artez begiratu du ni nagoen lekurantz.

—Bazatoz, Toure? —esan dit, eta harengana hurbildu
naiz, lotsaturik.

—Bazenekien atzetik nentorrela?

—Jakina, handiegia zara bazterretan ezkutatzen ibil-
tzeko. Badaukazu beste zereginik orain?

—Nik ez daukat inoiz beste zereginik.

—Orduan, sartu nahi duzu nirekin?

—Ados.

—Ea, hartu Mattin.

Sa Kenek aulkitxoa atariko gelaxka baten gorde, eta egu-
rrezko eskaileretan gora joan gara, bigarren solairuraino.

—Badirudi gogoko zaituela —esan dit, etxeko atea za-
baldu bitartean.

—Zer dauka, urtebete edo?

—Ia, hemendik gutxira izango du lehenengo urtebete-
tzea.

Egongelara joan gara zuzen. Askoz txukunagoa da etxe
hau, zeresanik ez, 43 zenbakiko gure patera-pisua baino. Au-
zoko plaza nagusira, Mariaren Bihotzeko plaza zabalera
emateak ere argitasun sentsazio atseginagoa eransten dio. Sa

Kenek umea eskatu dit, besaulkian jesarri, alkandora ireki eta titia ematen hasi zaio. Bularrean daukan tatuajeari erreparatu diot, musker gorrixka batena da, hain zuzen Burkina Fason *Sa Kene* esaten diogunarena. Hango gizonok berba hori emakume ederrei erreferentzia egiteko ere erabiltzen dugu, Kristinari gustatu egin zitzaion eta azalean marraztea erabaki zuen. Primeran geratzen zaio, dena geratzen zaio ondo nire adiskideari; hiena adurti bat marraztu balu ere, ederra egongo zen, halakoa baita bera, xarmant hutsa.

Sentsazio bitxia izan dut titiburuari zurrupaka ari den haurrari begira, deseroso sentitu naiz, inbidia zentzugabe bat jabetu da nitaz, eta zakila gogortu egin zait bat-batean. Ilegoria ez konturatzeko berehala zutitu, leihoak ireki eta balkoira irten naiz.

Plaza desberdin sumatu dut aurreko aldiarekin konparatuta. Liburutegiaren ondoko eraikinera ekarri dute Udaltzaingoaren komisaria eta hainbat patruila-auto daude apartatuta haren aurrean. Dena den, aldaketa nabarmenena jendeari dagokio. Jarleku eta bazterrak beterik daude, lehen bezalatsu, baina orain umeak zaintzen dituzten emakume multzoak nahiz dominoan jokatzen edo txakurren alboan berbaz egoten diren gizon taldeak, denak ijitoak, ez dira jaun eta jabe. Horiez gain, magrebtar gazte talde ugari ere ageri dira. Gehienek rap estiloko kantuek edo Ipar Afrikako musika daukate jarrita euren sakelakoetan.

—Nahiko aldatuta dago plazako giroa, ezta? —galdetu dut, atzera begiratu gabe.

—Kosmopolitagoa da orain, ezta?

—Horrela esan liteke, bai. Lehen, hau ijitoen eremua zen, bazirudien eurenak zirela jarleku guztiak nahiz jolas parkea. Ez dut uste grazia handirik egingo dienik horrenbeste inbasore zaratatsu ikusteak inguruan.

—Batere ez. Gainera, batzuek hortxe pasatzen dute gaua ere, plazako arkupeetan. Istilu txiki batzuk egon dira jada, eta edozein egunetan zerbait handia gertatuko da. Hori diote, behintzat, ijitoek.

—Magrebtarrei txiki geratu zaie Maiatzak 2ko bidegurutzea?

—Handik alde egiten behartu dituzte. Ez dakit fijatu zaren, orain udaltzainak egoten dira ia beti inguru hartan, auto eta guzti ahalik eta espazio zabalena okupatuz. Auzo Elkarte berri bat zarata handia egiten ari da eta kamera eta polizia gehiago exijitu eta lortu dituzte. Horrez gain, espaloietako jende-pilaketen kontra ere egiten dute protesta, eta orain, atzeritarrak pilatzen ziren lekuan, polizia-pilaketak egoten dira.

—Eta magrebtar horiek plazara etorri dira. —Jonkien tokialdaketa etorri zait burura.

—Batzuk bai, plazara etorri dira, beste batzuk Maiatzak 2ko bidegurutzetik hogeit metro gorago edo beherago egoten dira. Poliziak alde egin arte, jakina, ze gero berriz okupatzen dituzte euren gogoko tokiak.

—Jarraitzen dute kola eta disolbagarria esnifitzen?

—Gaztetxo etxebakoek eta bai, eta pilula batzuk ere modan jarri dira, *Lyrica* izenekoak, antidepresiboak, mina

kentzen dutenak... Orain horixe da farmazian gehien saltzen dugun produktua. Jonkiei erraz errezetetzen zaie, eta hauek trapitxeoa egiten dute kolazaleekin.

Sa Kene balkoira irten da eta haren gorputzaren berotasuna sentitu dut nirearen kontra. Atzera begiratu eta umea aulkitxoan ikusi dut, lo.

—Izebak lana eskaini dizula esan dit.

—Bai, oso eskaintza tentagarria izan da.

—Imajinatzen dut. —Barre egin du.

Eguraldiak hobera egin du arratsaldean zehar, tenperatura ona da eta jendea kalera irteten animatu da. Gure etxepeko tabernen terraza txikiak beteta daude orain. Bezero guztiak zuriak dira, autoktono itxurakoak. Arias-ko txanpinoien usaina sumatu dut, a ze gosea!

—Bestelako lan proposamenik ez badaukazu, beste aukera bat ere badago.

—Zein?

—Kanguruarena egin zenezake niretzat.

Ez zitzaidan halako proposamenik burutik pasatuko.

—Umea zainduko dizut nahi duzunean, jakina —erantzun diot, halere.

—Ez zaitut erraz imajinatzen zeregin horretan, baina tira, zergatik ez?

—Horixe, zergatik ez?

—Deserosoa iruditzen bazaizu aulkitxoarekin paseatzea, badaukat motxila berezi bat, bularrean eramateko. Beharbada nahiago duzu.

—Bai, hobeto. Dena dela...

—Zer?

—Ez dut nahi ezer ordaintzea, ez zait ondo iruditzen.

—Bueno, oraingoz proba egin dezakegu, ea zer moduz moldatzen zaren. Normalean Mozollo Baltzean uzten dut Mattin lanera joan aurretik. Nahi duzunean, edo tarte libreren bat daukazunean, handik hartu eta paseo labur bat edo eman ahal diozu. Konpromisorik gabe. Zer deritzozu?

—Ondo deritzot, baina debalde egingo dut.

Kristinaren begirada sumatu dut. Nik, ordea, plazako jendartera so jarraitu dut. Ijito batzuek euren musika jarri dute, oso ozen, eta txaloka hasi dira. Rapa entzuten ari diren alboko magrebtarrak begira geratu zaizkie, eta bolumena igo dute, halako nahaste-borraste musikal bitxi bat sortuz.

—Tira, aurrerago hitz egingo dugu zure soldatari buruz —esan du ilegorriak, azkenik—. Bien bitartean, aurrerapenen bat egingo dizut espeziatan. Hasteko, Ariasko txanpinoi batzuk gustura jango zenituzke?

—Zelan jakin duzu horretan pentsatzen ari nintzela?

—Entsalada oparo bat ere presta dezakegu, badago jeneroa hozkailuan. Eta gero... Osman ez da jeloskor jarriko gaur berarekin lo egiten ez baduzu, ezta?

—Kontrakoa. Askoz hobeto deskantsatuko du nire zurrungarik gabe.

Sa Keneren besoaren igurtzi txikiaren eraginez zakila berriez tentetzen hasi zait, baina nire lagunaren azalean igarri dudan beltzunearen arrastoak hondatu egin dit emozioa.